

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Angelu itsuak



Iratxe Retolaza


Arantxa Iturberen narrazio-bildumek inkomunikazioaz jarduten dutela aipatu izan da maiz: gaizki ulertuak dituztela ardatz, esan gabekoak, isildutakoak. Bada halakorik *Honetara ezker* bilduman. Baina, hartu-emanetan sorturiko erritual zein kodeez dihardute batik bat.

Hogeita bederatzi eszena eta pieza laburrez osaturik dago bilduma, eta batasuna igartzen da tonu, giro, erritmo zein ikuspegian. Pieza narratibo guztietan egunero elkarren ondoan dagoen jendea irudikatzen zaigu (senideak, lankideak, bikoteak, adinekoak eta zaintzailak...). Pertsonaien mundu-ikuskeraz zartatu egiten da narrazio hauetan, hurkoari buruzko irudia lehertzen zaielako: keinu batek mesfidantza sortzen du, hizketaldi batek nortasunaren ertz berri bat ikusgarri egiten du... Hurkoaren gogo zein asmo antzemanekin angelu itsu bilakatzen dira, elkarrengana hurbiltzeko horma, susmoen iturri. Hurkoaren irudia auzitan, eta baita protagonisten irudia ere, hurkoa dutelako nortasuna eraikitzeko ispilu nagusi. Ispilu hautsiaren aurrean, askotariko bideak hartuko dituzte: ispilua berreraikitze ahaleginari eutsi, ispilu berriak bilatzeko asmoari lotu, kristal hautsiek sorturiko zaurietan izoztu...

Haustura horiek kontatzeko ikuspegi jakin bat joratu da: narratzaile gehienek ahots hotz eta urrun bat gorpuztu dute, afektu eskasekoa. Izan ere, zentzuz eta tentuz jokatu beharrak itsukeriara daramatza pertsonaiak, nor berean tematurik, eta ezinezko zaie bestearen larruan

Honetara ezker ARANTXA ITURBE

Susa, 2017



Arantxa Iturbe Maiz idazlea eta irratia esataria (Alegia, Gipuzkoa, 1964).

ARGAZKIA: DANI BLANCO



jartzea. Hoztasun horren bidetik eraiki ditu narraziorik indartsuenak (*Profanazioa, Etxea, Terapia, Atea, Begirada, Apustua*).

Narrazio askotan angelu itsuak sortu ditu, isilune eta elipsi ugari. Ezustekoak eta zartakoak sortzeko oso teknika aproposa; baina, jautzien ondorioz, zail egin zait narrazio batzuen haria ongi segitzea lehen irakurraldian (*Potroak, Pena, Gonbita*). Bigarren irakurraldian, aldiz, ahotsak ongi identifikatu eta hariak ongi josita zeudela ohartu naiz. Hortaz, hainbat narraziotan teknika narratibo ere bilakatu du ispilu hautsien irudia, kode hautsiak gorpuztu baititu maiz (elkarrizketetan, osagai narratiboen segidan, jautzietan...), eta piezak josteko gonbidapena egiten digu. ■